

Baxurako euskal flotak 50 untzitik gorako murrizketa izango du aurten

Azken urteotako harrapaketen beherakadak eragin handia izan du

Baxura sektorearen dimentsioa gehiegizkoa da harrapaketa eta arrantzale kopuruarekin alderatuz. Bi faktore hauek untxi kopurua murrizaraztea ekarri dute. 1991n zehar baxurako 50 untzitik gora desagertu dira euskal portuetatik.

BILBO

Baxurako arrantzan harrapaketa nagusiak diren bixigu, legatz, txitxarro, berdel eta hegaluzearen jaitziera izugarriek batetik, eta lan merkatuan gero eta arrantzale gazte gutxiago aurkitzeak eragin dute batez ere, mota honetako untxi kopurua murriztu behar izatera.

Jose Ignacio Espelen, Eusko Jaurlaritzako Arrantza sailburuordearen iritziz, baxurako arrantzuntziak desagertaraziz, flotaren berrantolaketa poliki ematen ari da «egoera orekatu batera iritsi arte». Arrantza arduranaren esanetan, «legatzuntzi txikiak pixkanaka desagertuz doaz, 50 tona inguruko 'txiki-handi' untxiei tokia utziz». Azken arrantzuntzi hauek arrain mota ezberdinen harrapaketa parte hartu ahal izan dezakete eta beraz, urte osoan lanean aritu daitezke.

Espelek azpimarratzen duenez, Euskal Herriko baxurako untxien helburu nagusia hegaluzea izanik, arrantzuntziak arrain mota honen bankoak dauden tokietara bideratu behar dira. Gasteizko Gobernuak Arrantza sailburuak azaltzen duenez, «nere ustetan kaladeroak ez dira finkoak izango. Horregatik arrantzuntzi moldakor eta potentzia han-



Bermeon 25 untxi eta Hondarribian 20 desagertu dira aurten baxurako flotaren birmoldaketaren ondorioz. MONTXO OTXOA

dikoak behar ditugu batetik bestera ibili ahal izateko».

BERMEO ETA HONDARRIBIKO KASUAK

Baxura arrantzako euskal portu nagusiak diren Bermeo eta Hondarribian bereziki igarri da untxi kopuruaren murrizketa. Bermeoko kasuan 25 untxi desagertu dira aurten, eta Hondarribian 20 izan dira kendu direnak.

70. hamarkadan Bermeoko portuan baxurako arrantzuntzien kopurua 160 ingurukoa zen bitartean, gaur egun 100 untxi daude. Kontutan izan

behar da orain dela zortzi urte, esaterako, 200 bixigu tonatik gora sartzen zirela Bermeon eta iaz 9 tonara ozta ozta heltzen zirela arrain mota honen harrapaketa. Legatzari dagokionez antzerakoa da egoera.

Kezkagarria izan da baita ere antxoa harrapaketez izan duten beherakada. 1984ean 15 tona arrantzatu ziren Bizkaian. Kopuru hau hiru tonara jaitsi zen 1989an eta aurten bi tona antxoa besterik ez dituzte harrapatu arrantzale bizkaitarrek.

Hondarribian gertatu den prozesua antzekoa da. Berdel eta hegalu-

zearen arrantzan oinarritzen diren baxurako untxien kopurua jaitsi behar izan dute gipuzkoarrek, atunaren arrantzan erabilitako bolantek % 40 murriztu bait dituzte arrain mota honen harrapaketa. 1989. urtean 5.700 tona sartu ziren Gipuzkoako portuetan hamar hilabeteetan. Aurten urrira bitartean arrantzatutakoa 3.800 tonara besterik ez da iritsi.

Nahiz eta untxi kopurua jaitsi, Esteban Olaizola Hondarribiko kofradiako arduradunaren esanetan «langabezia ez da areagotu» Gipuzkoako portu honetan.

Galdakaoko eztanda ikertzeko bi batzorde sortu dira UEEen

BILBO

Unión Española de Explosivosko (UEE) zuzendaritzak eta enpresa batzordeak komisiyo bana eratu dute Galdakaoko lantegian lau langileen heriotza eragin zuen ezteandaren arrazoiak ikertzeko. UEEko nagusiek enpresako sindikatuarekin atzo izan zuten bileraren ostean erabaki zuten ikerketa batzorde hauek osatzea.

Enpresako iturrien arabera, badira zenbait hipotesi istripua eragin zezakeenari buruz. Fernando Romero enpresako eledunak atzo aipatutako hipotesiaren arabera, lau hildakoek ezteanda egin zuen makina konponentzen ari, zitezkeen. Galdakaoko UEEren lantegiko produkzioa etenda egongo da ikerketa egiten den bitartean.


Ezteanda egin zuen makina alemaniarra zenez, enpresako zuzendariak Alemaniako zenbait teknikoren zain zeuden atzo, istripua argitzeko helburuz makinaren azterketa egiteko.

✓ Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak ere ikerketa hauetan parte hartuko duela esan zuen atzo Paulino Luesma sailburuak.

Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak ere ikerketa hauetan parte hartuko duela adierazi zuen atzo Paulino Luesma sailburuak eta bi batzordeekin bilduko da datorren astelehenean Lakuan.

HB-RENTZAT LAN TERRORISMOA

Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak ere ikerketa hauetan parte hartuko duela adierazi zuen atzo Paulino Luesma sailburuak eta bi batzordeekin bilduko da datorren astelehenean Lakuan.



Galdakaoko UEEren lantegia ezteandaren ondoren.

Herri Batasunak «lan terrorismoztat» jo zuen Galdakaoko UEEko istripua atzo kaleratutako agiri baten bidez. HBrentzat, honelako gertakarietan benetako errudunak «segurtasun eta osasun alorretako inbertsioak aurrezten dituzten industriariak» dira.

Atzo bezalako istripuak ez dira, HBrentzat, «ezin ekidin daitezkeen ezbeharrak». Alderdi abertzaleak erakunde publikoei ere leporatu zien erantzunkizun eta ardua ezbehar horretan, «enpresa iharduera kontrolatzeko beharra ez betetzen ez dutelako».

Jaurlaritzak 2.400 milioi jasoko ditu jokoaren zergarekin

GASTEIZ

Eusko Jaurlaritzak 2.400 bat milioi pezeta biltzea espero du jokoaren gaineko zerga berri baten bidez, diputazioek egun kobratzen dutenei erantsiko zaiona.

Administrazioko Haziendak ez du oraindik erabaki zerga berria izango den edo diputazioek kobratzen duten tasa fiskalen gehigarri bat.

Eusko Legebiltzarrak onartu behar duen zerga berria oraindik zehaztu gabe badago ere, Eusko Jaurlaritzak datorren urterako egindako aurrekontuetan 2.400 milioi pezeta dirutza hori jasotzen da.

Hazienda Sailaren asmoa zerga berri honek jolas edo turismo alorreko jokoei ez eragitea da, hala nola pilotaleku edo hipodromoak. Zerga berria joko makina eta bingoetan bakarrik aplikatuko litzateke.

Euskal diputazioek 12.443 milioi pezeta bilduko dute datorren urtean —1.710 milioi Araban, 6.371 milioi Bizkaian eta 4.362 Gipuzkoan— txanponjaleak bezalako joko makinen jabeek kobratzen dizkieten tasa fiskalen bidez.

EAEn dauden 23.000 joko makinen jabeek zergarekin gehitu egingo dute ordaindu beharrekoa.

Kopuru honetan merkatuan dauden hiru makina motak sartuta daude: A motakoak —diru saririk ematen ez duten jolas makinak—; B motakoak —10.000 pezeta arteko sariak ematen dituzten txanponjaleak— eta C motakoak —kasino eta itsasontzietakoak—.

Europako merkatal flotako sindikatuek grebara deitu dezakete

MADRIL

Merkatal flotako Europako sindikatuak sektore honetan grebara deituko dute, baldin eta hiru hilabete epean Europako Komunitateak itsasontzien liberalizazioaren aurrean langileak babesteko erantzunik ematen ez badu.

Sindikatuak uko egiten diote itsasontziak bigarren erregistro batean sartzeari. Europako lurralde askotan nagusitzen ari den formula honen bidez, untxijabe edo itsas konpainietako nagusiek langileekiko malgutasun handiagoa izango dute, atzerriko marinelak hartu ditzaketelarik. Gainera, formula honek fiskalitate txikiagoa ahalbidertzen du itsas merkataritzan eta itsasontziak komenientziatzeko banderapean erregistratzea ekidin daiteke.